



EBAZPENA, 2022KO AZAROAREN 2KOA, LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN ALDI BATERAKO IRAKASLEEN BEHARRAK ESTALTZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDARI BURUZKOA, 2022/2023 IKASTURTE-HASIERAKO ESLEIPEN-PROZESUAREN ESPARRUAN.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2022ko maiatzaren 17ko ebazpenaren bidez, Langileriaren Kudeaketako Zuzendariak 2022/2023ko ikasturte hasierako esleitzeko prozesuaren deialdia egin zuen.

Bigarrena.- Prozesu hori Langileriaren Kudeaketako zuzendariak 2022ko uztailearen 15ean ebatzi zuen, ordezkapenak egiteko izangaien 2022/2023 ikasturte hasierako esleipen-prozesuari buruzko behin betiko ebazpena argitaratuta. Esleitutako pertsonen eta plazen zerrendak interesdunei jakinarazi zitzaizen ikasturte-hasierako esleipen-aplikazioan (HEZIGUNEAREN ingurunean) eta Hezkuntza Sailaren web-orriko prozesu horri buruzko iragarki-taulan.

Era berean, 2022ko abuztuaren 30ean, ikasturte osoko ORDEZKAGUNEAN eskaintzeko plazen zerrenda argitaratu zen.

Deialdia honen bigarren ebazpen-zatian xedatutakoaren arabera, esleipen-prozesua Hezkuntza Sailaren web-orrian kolektibo bakoitzarentzat argitaratutako egutegiaren eta ordutegiaren arabera burutu zen. Eta egutegi horretan honako hau adierazten da:

“IRAILAK 1. Langile guztiak beren lanpostuan aurkeztea”

Hirugarrena.- 2022ko urriaren 3an, Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratu zen Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren jakinarazpena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko zerrendatik kanpo uzteko prozesua hasi zen.

Jakinarazpen horrek 1. eranskinean jasotzen zuen irailaren 1ean 2022/2023 ikasturtearen hasieran esleitutako lanpostura aurkeztu ez ziren izangaien zerrenda, eskaintako lanpostua eta dagokion ikastetxea adierazita.

Laugarrena.- Aipatutako izangaiak irakasleen ordezkapenatarako zerrendatik kanpo utzi aurretik, hamar egun baliouduneko epea eman zen egokitze jotzen zena alegatzeko, jakinarazpen hori argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izapide hori egiteko emandako epea amaitu ondoren, baztertze-prozesu hau ebatzen da, honako klausula hauen arabera

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak du ebazpen hau emateko eskumena, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuan ezarritakoaren arabera.



Bigarrena.- Aplikatzekoak dira honako hauek:

- Agindua, 2022ko ekainaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak betetzeko zerrendako hautagaiei ikasturte-hasierako lanpostuak esleitzeko prozedura arautzen duena.
- Agindua, 2012ko abuztuaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duena.
- Gainerako araudi aplikagarria.

Hirugarrena.- 2022ko urriaren 3ko jakinarazpenaren 1. Eranskinean jasotako izangaien kasuan, ez ziren lanpostuaz jabetu, egoera hori behar bezala justifikatu gabe.

Ildo horretatik, 2022ko ekainaren 16ko Aginduaren 11. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, izendapenari uko egiten zaiola ulertuko da:

“11. artikulua. – Uko egitea.

1. – Hurrengo 2. paragrafoan aurreikusitako kasuan izan ezik, esleitutako lanpostuari edo lanpostua betetzeko beharrari eta, hala badagokio, egindako izendapenari edo egindako kontratazioari uko egitea justifikaziorik gabekotzat joko da.

Lanpostuaz jabetzeko ezarritako egunean ikastetxean agertzen ez den izendatuak izendapenari uko egin diola ulertuko da.”

Aipatutako artikulua 2. paragrafoan, esleitutako plazari modu justifikatuan uko egiteko kasuak eta jarraitu beharreko prozedura jasotzen dira:

*“2. – Ezin izango zaio uko egin esleitutako lanpostuetan aritzeari, **ordezko gaien zerrenda kudeatzeko indarrean dagoen araudian jasotako uko egiteko arrazoiren bat dagoenean izan ezik**, baldin eta arrazoi hori aurreikusi ezin diren egoera berrien ondorio bada eta eskabideak aurkezteko eta lanpostuaz jabetzeko epea hasi baino bost egun baliodun lehenago adierazi badira eta alegatzen dituenaren borondatezko jardueraren ondorio ez badira.*

Justifikatutzat joko da soil-soilik urte horretako irailaren 1a baino lehen jakinarazi eta egiaztatzen bada egoera hori.”

Laugarrena.- 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 44.1 f) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, zerrendetatik kanpo uzten dira hautagaiak:

“1. – Zerrendatik kanpo uzteko arrazoiak honako hauek dira:

f) Esleitutako lanpostuaz ez jabetzea, edo zerbitzuak emateari uztea, behar bezala justifikatu gabeko arrazoiren batengatik.”



Bestalde, 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 40. artikulua honako hau xedatzen du:

“40. artikulua. – Uko egitea.

1. – Eskaintzaren unean berariaz adierazten bada, honako hauek onartuko dira egindako eskaintzari **uko egiteko arrazoi justifikatu gisa**:

- a) Aldi baterako **baja-egoerarako** zerrendetan jasotako kasuren batean egotea.
- b) Borondatezko esleipen gisa adierazitako lanpostua izatea.

2. – **Arrazoi hauek ere onartuko dira**:

- a) Hautagaiak uko egitea, ezauzarri espezifikoak dituzten lanpostu jakin batzuk betetzeko gaitasunik ez duela uste duelako, agindu honetan ezarritako protokoloaren arabera.

(...)

- b) Izangaiak uko egitea, eskaintako lanpostuaren berezko eginkizunak betetzearekin bateraezina den minusbaliotasun fisikoa duelako. Egoera hori behar bezala egiaztatuta beharko da.

3.– (...).”

Agindu horren 30.1 artikulua honako hau adierazten du:

“1. – Honako egoera hauetakoren batean daudela egiaztatzen duten pertsonak igaroko dira aldi baterako baja-egoerara:

- a) Gaixotasun arruntak edo lanetik kanpoko istripuak eragindako aldi baterako ezintasuna.
- b) Lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak eragindako aldi baterako ezintasuna.
- c) Haurdunaldiko edo haurdunaldiko arriskua, behar bezala egiaztatuta.
- d) Amatasuna, adopzioa eta harrera: amaren kasuan, haurdunaldiko zazpigarren hilabetetik erditu ondorengo hemezortzigarren astera bitartean. Epea hogeigarren astera artekoa izan daiteke seme edo alabaren desgaitasun-kasuetan, eta erditze anizkoitzekoetan, bigarrenetik aurrerako seme-alaba bakoitzeko.

(...)

- e) Aitatasuna: seme edo alaba bat jaio, adoptatu edo hartu, harrerari buruzko erabaki administratibo edo judiziala hartu edo adopzioa eratzten duen ebazpen judiziala eman eta hurrengo 4 asteetan. Arrazoi horrengatik aldi baterako baja-aldia gerora aldatzeko, horretarako ezartzen diren lege-xedapen orokorrak bete beharko dira.



f) Odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko 2. mailarainoko senideen gaixotasun larria edo heriotza. Aldi baterako baja-egoera 3 lanegunekoa izango da odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko 2. mailarainoko senideen heriotzagaritik, edo, elkarrekin bizi badira, urrunagoko mailarainoko ahaideen heriotzagaritik, eta 5 lanegunekoa ezkontidearen, bikotekidearen edo semearen edo alabaren gaixotasun larri justifikatuagaritik edo heriotzagaritik. Odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko 2. mailarainoko ahaideen gaixotasun larri justifikatuagaritik, edo, elkarrekin bizi badira, urrunagoko mailakoa izateagaritik, muga bi lanegunekoa izango da.

(...)

g) Norberaren ezkontza edo izatezko bikotea eratzea, Izatezko Bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera, betiere EAEko Izatezko Bikoteen Erregistroak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada aldi baterako baja dagokion erregistroan egin edo inskribatu eta hurrengo 20 egun naturalen barruan edo aurretik gertatzen bada.

h) Askatasun-gabetzea, kondena-epaia eman arte.

i) Hezkuntza Sailak, HAEek edo beste autonomia-erkidego batzuetako hezkuntza-administrazioek antolatutako ikastaroetan parte hartzea.

j) Ikasketa-bekak edo hezkuntza-sistemeekin zuzenean lotutako bekak edo laguntzak izatea.

k) Ikasketa ofizialak eta/edo praktikoak egiten aritzea.

l) Edozein lan-kontratu izatea, administrazio publiko batean izendatzea, edo Gizarte Segurantzari autonomo gisa alta emanda egotea. Kasu horretan, merezimenduen baremoko 3. atalean eskatzen diren egiaztagiria aurkeztuko dira.

m) Atzerrian GKE batentzat lanak egiten aritzea.

n) Karrerako funtzionarioentzako zerbitzu berezien deklarazioa dakarren kasuren batean egotea.

o) Genero-indarkeriaren, terrorismoaren, jazarpenaren edo beste edozein indarkeria-motaren biktima izatearen arrazoiak; betiere, egiaztatu egin beharko dira.

p) Gaitasun-protokoloa ebaztea, babesten duen arrazoiaren behin-behineko kalifikazioarekin, eta ezin izango da luzatu horietako bakoitzerako ezarritako epea baino epe luzeagoan."

Aurrekarian azaldutakoaren arabera, emandako alegazioak aurkezteko epea amaituta eta horiek aztertuta, honako hau



EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkapenatarako hautagaien egoera, “justifikatutako uko-egite” egoeran edo “justifikatu gabeko uko-egite” egoeran, zerrenda honen arabera:

ABIZENAK, IZENA	LANPOSTU ZK	IKASTETXEA	EGOERA
CUBELOS PEREZ, ALEJANDRO	33087	IES BEASAIN BHI	JUSTIFIKATUTAKO UKO-EGITEA
EIZAGIRRE BARCO, JOSU	19560	CIFP DON BOSCO	JUSTIFIKATUTAKO UKO-EGITEA
EUGUI GOÑI, IKER ENDIKA	22432	IES KOLDO MITXELENA	JUSTIFIKATUTAKO UKO-EGITEA
APERRIBAY MARTINEZ DE SAN VICENTE, ANDONI	228	CIFP ARETXABALETA	JUSTIFIKATUTAKO UKO-EGITEA
CALZADA ENRIQUEZ, JUDITH	524272	IES Koldo Mitxelena BHI	JUSTIFIKATU GABEKO UKO-EGITEA
GARCIA DE LA TORRE AURREKOETXEA, EIDER	75386	CPM Francisco Escudero MKP	JUSTIFIKATU GABEKO UKO-EGITEA
CORTAJARENA SANTIAGO, MADDALEN	75386	IES J.M. Iparragirre BHI	JUSTIFIKATU GABEKO UKO-EGITEA
RODA AZPIROZ, AINARA	74613	IES Zumaia BHI	JUSTIFIKATU GABEKO UKO-EGITEA
PERRIGO LARRAÑAGA, ANNE	75320	IES Orixe BHI	JUSTIFIKATUTAKO UKO-EGITEA
IÑIGUEZ PASCAL, MARÍA ESTHER	75255	CPI Juan Zaragueta Herri Eskola IPI	JUSTIFIKATU GABEKO UKO-EGITEA
AGIRRE KORTADI, MADDI	39534	IES EKIALDEA BHI	JUSTIFIKATUTAKO UKO-EGITEA
GARCIA GONZALEZ, IOAR	36530	IES SAMANIEGO-LAGUARDIA BHI	JUSTIFIKATU GABEKO UKO-EGITEA
ARREGUI SAN MIGUEL, ANE	28373	CIFP MENDIZABALA LHII	JUSTIFIKATU GABEKO UKO-EGITEA
BILBAO RUIZ, JAVIER	26927	IES Miguel de Unamuno	JUSTIFIKATUTAKO UKO-EGITEA
MARTINEZ DE GUEREÑU TAPIA, IBAI	36385	IES LAKUA BHI	JUSTIFIKATUTAKO UKO-EGITEA
GARCIA SANTISTEBAN, OLATZ	30097	CEIP RAMIRO DE MAEZTU HLHI	JUSTIFIKATU GABEKO UKO-EGITEA
ALZOLA GARAMENDI, ELISENE	74978	IES Samaniego Laguardia	JUSTIFIKATUTAKO UKO-EGITEA
BASTERRETXEA BAREA, GARAZI	36577	IES TXURDINAGA	JUSTIFIKATU GABEKO UKO-EGITEA
GONZALEZ LARRAÑAGA, ALEJANDRO	1033	IBARREKOLANDA BHI	JUSTIFIKATUTAKO UKO-EGITEA
MONREAL ORLA, ISABEL	35630	NTRA.SRA. DEL PILAR	JUSTIFIKATU GABEKO UKO-EGITEA
PINILLOS SAENZ, ASIER	36579	IES TXURDINAGA	JUSTIFIKATU GABEKO UKO-EGITEA



Bigarrena.- Lehenengo ebazpen-zatian jasotako pertsonak, esleitutako lanpostuaz jabetu ez zirenek (JUSTIFIKATU GABEKO UKO EGITEA), ezin izango dute berriro eskatu hautagaien zerrendara itzultzea 2022/2023 ikasturtean, ezta 2023/2024 ikasturtean ere, 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 44.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.- Hautagaien zerrendatik baztertutako pertsonak zerrendetan sartu ahal izango dira berriro, 2012ko abuztuaren 27ko Aginduan aurreikusitako irekiera-prozeduretakoren batean parte hartuz.

Laugarrena.- Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren orrialde ofizialean argitaratuko da, eta hark izango ditu jakinarazpenaren ondorioak, 39/2015 Legearen 45.1 b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

ERREKURTSOA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio-bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 2a

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIA